



Usurbilgo Udala

GZ42/2021-0027
2021GDDE0001

DIRULAGUNTZEN BATZORDE OROKORRAREN

EBAZPEN - PROPOSAMENA

DESERROTZE ETA BAZTERTZE SOZIALEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN SENIDEEI ERANTZUTEKO 2021. URTEKO DIRULAGUNTZA KOPURUAK ONARTZEA

2021eko apirilaren 7an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2021. urteko dirulaguntzen oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit eguneko epea emanez, hau 2021ko maiatzaren 5ean bukatu zelarik.

Epea amaitu ondoren, ez da eskaerarik aurkeztu .

Teknikariaren txostena kontutan izanda, hurrengo Osasun eta Gizarte Zerbitzuak batzorde informatiboan, Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2021. urteko dirulaguntzen berri emango da.

Eta kontutan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzak arautzen dituena.
- Dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (GAO, 2008-07-01).
- Usurbilgo Udaleko 2020-2022ko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa (GAO 2020-01-22).
- Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2021. urteko dirulaguntzen oinarriak (GAO, 2021-04-07)

EBAZPEN - PROPOSAMENA

Dirulaguntzen Batzorde Orokorrak **EBAZPEN-PROPOSAMEN** hau luzatzen dio Alkate-Lehendakariari:

LEHENENGOA: Deserrotze eta baztertze sozialeko arriskuan dauden pertsonen senideei erantzuteko 2021. urteko dirulaguntzen espedientea amaitutzat ematea.

LAUGARRENA: Ebazpen proposamena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesatuak alegazioak aurkezteko 10 eguneko epea izango du GAO n iragarkia argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita.



Usurbilgo Udala

GZ42/2021-0027
2021GDDE0001

BOSGARRENA: Udaleko iragarki taulan eta www.usurbil.eus web orrian ere behin behineko proposamenaren eta behin betiko ebazpenaren berri emango da.

SEIGARRENA: Aipatutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, ebazpen-proposamen hauek finkoak izatea.

Usurbilen, 2021eko ekainaren 29an.

Batzordeko idazkaria

Garazi Etxeberria San Miguel